

TITULARRAK	ADIERAZLEAK	Azken data	Δ Urte artekoa (%)	Azken datuaren data
			*aurreko aldia	
<ul style="list-style-type: none">Bilboko enpresetan maiatzean afiliatutako biztanle-kopurua $-0,3$ jaitsi da aurreko hilekoarekin alderatuta, 193.617 pertsona baitaude.Erregistratutako langabeen kopurua murriztu da, eta 21.062 langabe daude ($-2,1$ hilabetetik hilabetera).Maiatzean 11.705 kontratu erregistratu ziren guztira eta 8.377 pertsona kontratatu ziren.Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute urte batetik bestera ($-1,7$).Bilboko turismo-jarduerak gora egin du hoteletan 199.399 ostatu-gau eta 102.887 sarrera lortu arte. Ostatu-gauen batez besteko egonaldia: 1,94 gau.Bizkaiko BPGd-k $1,7$ egin du gora urtetik urtera, eta $0,6$ aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.Bilboko aireportuan 615.774 bidaiari erregistratu dira, 2023ko maiatzean baino 44.790 gehiago.Bilboko Portuan 3,38 milioi tonako trafikoa erregistratu da maiatzean, eta $15,9$ko gorakada egin da urterik urtera.	Lan-merkatua			
	Afiliatuak (kop.)	193.617	$-0,3^*$	Maiatza
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.062	$-2,1^*$	Maiatza
	Erregistratutako kontratuak	11.705	$-5,8$	Maiatza
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2022. urtea = 100eko oinarria)	98,7	$-1,7$	Maiatza
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	102.887	1,2	Maiatza
	Ostatu-gauak (kop.)	199.399	1,5	Maiatza
	Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd(miloi eurotan) (2015.urtea= 100 oinarria)	12.207,1	4,5	2024ko I. HH	
Garraioa				
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	615.774	7,8	Maiatza	
Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	3,38	15,9	Maiatza	

DATU BAT

% +0,6 hiruhilekotik hiruhilekora

Bizkaiko BPGd

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Maiatzean 450 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hiletik hilera $-2,1\%$ gutxiago, eta 21.062 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa jaitsi egin da gizonen eta emakumeen artean, $-2,1\%$ bi kasuetan. Datu absolutuetan, hilabetearen amaieran 202 gizon langabe eta 248 emakume langabe gutxiago egon dira.

Langabeziak kontuan hartutako adin-talde guztietan egin du behera. 16 eta 24 urtekoen artean, $-1,8\%$ eta 33 langabe gutxiago; 25 eta 44 urtekoen artean, -3% eta 230 gutxiago eta 45 urte edo gehiago dituztenen artean, $-1,5\%$ eta 187 langabe gutxiago.

Sektore guztietan jaitsi da langabezia: Industrian ($-0,3\%$ eta 4 langabe gutxiago), Eraikuntzan ($-0,6\%$ eta 8 gutxiago), Zerbitzuetan ($-2,8\%$ eta -430 gutxiago) eta Lehenengo sektorean ($-5,0\%$ eta 21 gutxiago). Lehen enpleguaren bila ari direnen artean $0,4\%$ igo da langabezia (13 langabe gehiago).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5) erregistratutako langabezia $-1,8\%$ murriztu da aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek behera egin dute. Beherakadarik nabariena Zaragozan erregistratu da ($-2,4\%$), eta txikiena Valentzian ($-1,2\%$).

Euskal hiriburuen multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa $-3,6\%$ jaitsi da. Behera egin du Donostian ($-4,7\%$), Gasteizen ($-4,2\%$) eta Iruñean ($-2,0\%$).

Langabeziak behera egin du EAEn ($-2,9\%$). Hiletik hilera lurralde guztietan jaitsi da: Araban ($-3,9\%$), Gipuzkoan ($-3,5\%$) eta Bizkaian ($-2,3\%$).

Afiliatuak

Maiatzaren amaieran, Bilboko enpresetan 193.617 afiliatu zeuden, hau da, apirilean baino 614 enplegu gutxiago, $-0,3\%$ gutxiago, alegia.

Araubideen arabera eta hiletik hilera, afiliazioak behera egin du araubide orokorrean, 649 enplegu gutxiagorekin, eta etxeko langileen araubidean, 25 enplegu gutxiagorekin. Langabeziak gora egin du autonomoen araubide berezian (28 enplegu gehiago) eta araubide berezietan (nekazaritza eta itsasoa), 32 afiliazio gehiago izan baititu.

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Maiatza	21.062 pertsona
	$2,1\%$ ▼
Emakumeak	$2,1\%$ ▼
Gizonak	$2,1\%$ ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$2,1\%$ ▼
G-5	$1,8\%$ ▼
G-3	$3,6\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Maiatza	193.617 pertsona
	$0,3\%$ ▼
Araubide orokorra	$0,4\%$ ▼
Autonomoak	$0,1\%$ ▲
Etxeko Sistema Berezia	$0,4\%$ ▼
Beste batzuk	$4,5\%$ ▲

Sektoreka, afiliatuak gutxiagotu dira Zerbitzuetan, 662 afiliatu galdu baititu (-% 0,4). Afiliatuak gora egin dute Eraikuntzan (+37, % 0,4), Industrian (+2, % 0,0) eta Lehen Sektorean (+9, % 3,9).

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, jaitsierak nabarmentzen dira Hezkuntzan, Administrazio Publikoan, Gizarte zerbitzuetan eta Informazioa eta komunikazioetan (390, 185, 174 eta 173 gutxiago, hurrenez hurren). Igoerak erregistratu dira, besteak beste, Ostalaritzan, Administrazio-jardueretan, Garraioa eta biltegiatzean eta Txikizkako merkataritzan (146, 87, 81 eta 57 gehiago, hurrenez hurren).

Urte artean enpleguak % 3,8ko hazkundea izan du, hau da, 7.075 afiliatu gehiago. Afiliazioak % 4,6 egin du gora araubide orokorrean. Behera egin du, aldiz, Etxeko langileen araubidean (-% 1,7) eta autonomoen araubide berezian (-% 0,2). Azken horrek 112 autonomo galdu ditu eta 30 hilabete dira jarraian behera egiten.

Sektoreka, Zerbitzuetan 6.974 afiliatu gehiago daude (% 4,1) eta Industrian 271 gehiago (% 3,2); Eraikuntzan, aldiz, 146 enplegu gutxiago daude (-% 1,6) eta Lehen sektorean 24 gutxiago (-% 9,1). Hezkuntzan, Administrazio-jardueretan eta Merkataritzan izandako hazkunde absolutuak nabarmentzen dira (1.124, 1.087 eta 1.043 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,4ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Sevillan izan ezik (-% 0,3), hiriburu guztietan egin du gora afiliazioak. Hazkunderik nabarmenena Valentzian erregistratu da (% 0,7).

G-3ko hiriburuetan, batera hartuta, afiliatuen kopurua % 0,1 hazi da. Donostian % 0,5 egin du gora, Iruñean eta Gasteizen, aldiz, -% 0,1 jaitsi da bi kasuetan.

EAEn, oro har, afiliatuak % 0,2 igo dira hilabete artean. Afiliazioak gora egin du hiru lurraldeetan: % 0,2 Gipuzkoan, % 0,1 Bizkaian eta % 0,4 Araban.

Kontratuak

Maiatzean 11.705 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino -% 5,8 eta 725 kontratu gutxiago.

Urtetik urtera, emakumeei egindako kontratuak behera egin dute (760 gutxiago) eta gizonei egindakoei, aldiz, gora egin dute (35 gehiago). Adin-tarteen arabera, gazteenei egindako kontratuak soilik igo dira, % 12,6 gehiago, hau da, 321 kontratu. Aitzitik, 25 eta 44 urte artekoen taldean egindako kontratuak -% 13,7 murriztu dira (885 gutxiago) eta 45 urtetik gorako artean -% 4,7 (161 gutxiago). Erregistratutako kontratuen % 47,8 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.590 kontratu) % 27,8 berriz, 45 urtetik gorakoei (3.254) eta gainerako % 24,4, ordea, gazteenei (2.861).

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Maiatza	193.617 pertsona
	% 0,3 ▼
Zerbitzuak	% 0,4 ▼
Eraikuntza	% 0,4 ▲
Industria	% 0,0 =
Lehen sektorea	% 3,9 ▲

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 0,3 ▼
G-5	% 0,4 ▲
G-3	% 0,1 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Δ Urte artekoa

Maiatza	11.705 pertsona
	% 5,8 ▼
Emakumeak	% 10,7 ▼
Gizonak	% 0,7 ▲
Lehen sektorea	% 62,5 ▲
Industria	% 9,3 ▲
Eraikuntza	% 7,7 ▲
Zerbitzuak	% 6,8 ▼
Kontratatutako pertsonak	% 0,7 ▲

Kontratuek beherakada izan dute Zerbitzuetan (-% 6,8, 793 gutxiago). Gora egin dute, aldiz, Lehen sektorean (% 62,5, 5 gehiago), Industrian (% 9,3, 40 gehiago) eta Eraikuntzan (% 7,7, hau da, 23 gehiago).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 74,3 izan dira maiatzean. 8.377 pertsona kontratatu dira eta % 53,0 emakumeak dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,40 kontratu.

EKONOMIA

Bizkaiko BPGd

Bizkaiko barne produktu gordinak % 1,7ko gorakada izan du urtetik urtera 2024ko lehenengo hiruhilekoan. Euskal ekonomia osoari dagokionez, gora egin du, % 1,7.

Bizkaiko ekonomiak hamabi hiruhileko daramatza jarraian hazkunde positiboa izaten BPGd-an.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,6 igo da eta, ondorioz, hazkundea aurreko hiruhilekoan izandakoa baino handiagoa izan da (% 0,4). Bestalde, EAEn hazkundea % 0,6koa izan da.

EAE osorik hartuta, jarduera-sektoreek bilakaera positiboa izan dute hiruhilekotik hiruhilekora: Gorakada izan da Nekazaritzan (% 5,4), Industrian (% 1,1), Eraikuntzan (% 0,9) eta Zerbitzuetan (% 0,3).

Barne-produktu gordina Bizkaia

I. hiruhilekoa

Δ Urte artekoa	% 1,7 ▲
Δ Hiruhileko artekoa	% 0,6 ▲
Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €)	12.207,1

MERKATARITZA

Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentak, maiatzean, -% 1,7 jaitsi dira urte batetik bestera, lan-egutegi homogeenari dagokionez. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,2 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 2,4 egin dute behera 2023ko maiatzarekin alderatuta eta gainerako produktuak maila berean mantendu dira (-% 0,4) aldi berean.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko -% 1,1ko beherakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Gipuzkoan (% 1,1) eta behera egin dute Araban (-% 0,3). EAEn, orokorrean, -% 0,6 egin dute behera.

Saltoki handiak Bizkaia

Δ Urte artekoa

Maiatza	98,7
Salmenta-indizea	% 1,7 ▼
- Elikadura	% 2,4 ▼
- Gainerako produktuak	% 0,4 ▼
Landunak	% 1,1 ▼

TURISMOA

Bilboko hotel-establimenduetan 199.399 ostatu-gau erregistratu dira maiatzean, hau da, % 1,5ko hazkundera egon da urtetik urtera (2.862 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak % 1,2 egin du gora atzerriko bidaiarien artean soilik (urtetik urtera % 4,8 igo direnak) eta hilabete honetan hoteletan sartu diren bidaiari guztien % 61,4 izan dira. Estatuko bidaiariek behera egin dute (-% 1,7).

Batez besteko egonaldiak gora egin du maiatzean: bidaiari bakoitzeko 1,94 ostatu-gau.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 108,5 eurokoak dira, hau da, % 12,9 gehiago urte artean. Batez besteko eguneko tarifa 131,9 eurokoa da.

Benchmarkina. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 13,2 hazi da urtetik urtera. Gasteizen % 19,0 hazi dira, Donostian % 10,9 eta Iruñean % 14,4. EAE osoan gorakada % 8,7koa izan da aurreko urteko maiatzaren aldean.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 7,4ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Valentzian eman da gorakadarik handiena: % 13.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 615.774 bidaiari erregistratu ditu maiatzean (iritsierak eta irteerak); beraz, urte artean % 7,8ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 44.790 bidaiari gehiago). Emaizta horiekin, gainera, maiatzeko daturik onena lortu du, jarduera hasi zuenetik.

Bidaiarien kopuruak gora egin du hegaldi nazionaletan zein nazioartekoetan. Lehenengoetan 8.163 bidaiari gehiago izan dira urtetik urtera (% 2,4), eta bigarrenen artean 36.732 gehiago (% 16,1).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsierak eta irteerak batuta, 4.831 izan dira (% 1,1ko hazkundera), eta garraiatutako salgaiak ere igo egin dira (% 20,6).

Hotel-gauak

Δ Urte artekoa

Maiatza	199.399 ostatu-gau	
		% 1,5 ▲
Hiru izar eta gehiagoko hotelak		% 0,5 ▼
Gainerako hotelak eta ostatuak		% 7,6 ▲

Bidaiarien sarrera

Δ Urte artekoa

Maiatza	102.887 sarrera	
		% 1,2 ▲
Nazionalak		% 4,0 ▼
Atzeritarrak		% 4,8 ▲

Batez besteko egonaldia

Δ Urte artekoa

Maiatza	1,94 ostatu-gau/bidaiari	
		% 0,52 ▲

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Δ Urte artekoa

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 7,9 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 12,9 ▲

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

Bilbo	% 1,5 ▲
G-5	% 7,4 ▲
G-3	% 13,2 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Aireko garraioa

Δ Urte artekoa

Maiatza	615.774 bidaiari	
		% 7,8 ▲
Nazionalak		% 2,4 ▲
Nazioartekoak		% 16,1 ▲
Salgaiak (kg)		% 20,6 ▲
Hegaldiak		% 1,1 ▲

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 12,1eko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Sevilla da altuena (% 14,9) eta Valentzia baxuena (% 10,8).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, -% 2,6 jaitsi da urtetik urtera. Iruñean % 11,3 handitu da eta Donostian % 3,2. Gasteizen -% 18,4 jaitsi da.

Benchmarkina

Δ Urte artekoa

Bilbo	% 7,8 ▲
G-5	% 12,1 ▲
G-3	% 2,6 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 3,4 milioi tonako trafikoa izan du maiatzean, hau da, % 15,9ko igoera aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan maiatzean kudeatzen diren salgaien % 61,3 izan da, eta urte arteko % 19,2ko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoak % 24,4 egin zuen gora (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrek, aldiz, % 4,8.

Maiatzean 16 itsas bidaia erregistratu dira.

Metatutako datuari dagokionez, urtarriletik maiatzera, 14,9 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino % 11,1 gehiago.

Itsas garraioa Maiatza

Δ Urte artekoa

Portuko trafikoa	3,38 milioi tona % 15,9 ▲
Bidaiariak garraiatzea	35.286 bidaiari % 1,4 ▲
Itsas bidaiariak (kop.)	20.554 itsas bidaiari % 8,6 ▼

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken data	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.062	-2,1*	2024 mai
Afiliatuak (kop.)**	193.617	-0,3*	2024 mai
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	11.705	-5,8	2024 mai
Biztanleria aktiboa (milakotan)	162,1	-7,1*	2024ko I. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	145,4	-9,3*	2024ko I. HH
Langabeak (milakotan)	16,7	19,3*	2024ko I. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	10,29	2,24 p.p.*	2024ko I. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	116,2	4,0	2024 mai
Afiliatuak**	20.135	5,5	2024 mai
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	108,6	-0,5	2024ko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	98,7	-1,7	2024 mai
Turismoa			
Bidaarien sarrera	102.887	1,2	2024 mai
Ostatu-gauak	199.399	1,5	2024 mai
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia)	1,94	0,52	2024 mai
Hoteletako okupazio-maila (%)	65,9	2,6 p.p.	2024 mai
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	108,5	12,9	2024 mai
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPGd	118,4	0,6*	2024ko I. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	108,8	-3,8	2024ko apirila
Merkataritza-sozietate berriak	231	1,3	2024ko I. HH
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	112,6	3,8	2024ko I. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.297,3	58,9	2024ko I. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2912,8	5,8	2024ko I. HH
Garraioa			
Bidaarien aire bidezko garraioa	615.774	7,8	2024 mai
Hegaldiak	4.831	1,1	2024 mai
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	3,38	15,9	2024 mai

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia



Kontratuak




Aireportuko bidaiariak



Afiliatuak



Bizkaiko BPGd



Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

